

# OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

DIRU-ITURRIAK



**• Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zaren produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure Ogi txigor prestatzailea jende dirudunari eta hotelei bideratuta dago batez ere. Izan ere, merkatuan berria den zerbait eskaintzen ari gara, horretaz gain denbora aurrezten laguntzen duena ere. Enpresa sortzeko, aldez aurretik diru kopuru bat inbertitu beharko da lokala eta saldu beharreko produktua sortzeko. Gure proiektua ondo salduz gero, etekinak izango ditugu eta era horretara, produktutik lortutako etekina partaideen artean banatuko da adostutakoaren arabera. Hornitzaile bakoitzak %15a jasoko du, produktu banatzaile bakoitzagatik (bi ditugu: atzerriko eta estatu barrukoa) %10 eta produktua diseinatu eta enpresan diseinuan, marketinean, web-orrian, dendan eta kontabilitatea eramaten duten langileei %75. Gainera, kafe makinen (adibidez Nespresso) eta jan prestatzaile famatuen (adibidez Thermomix) prezioekin alderatuta, 200€ eta 300€ bitarteko prezioa pentsatu dugu. Prezioaren tarteak, jende eksklusiboari bideratuta dagoelako eta produktua zabaltzea asko kostatuko delako erabaki dugu. Baina lehen esan bezala, produktu eksklusiboa izango dela aurreratzen dugu. Hori, gure dendan edo web-orrian ordainduko da eskuz zein diru-txartel bidez, ordainketa bakarrari esker. Horretaz gain, diru-sarrerak sortzeko modu anitzak izango ditu gure enpresak. Batetik, Leasing bidez, gure langileek hoteletara gure makina eramango dute. Horretaz gain, osagai enprekin hitzarmen bat egin ondoren, beraien iragarkietan gure makina agertzeko aukera izango da. Bestalde prezioa dinamikoa izango da, urteak joan ahala, prezioak aldatu egin daitezkeelako, jende gehiagok erosi izango duelako.